

BILBOKO UDALAK MUGIKORTASUNAREN ARLORAKO ETA TERRAZEN IREKIERARAKO AURKEZTU DITUEN NEURRIAK MAIATZAREN 11N HASIKO DIRA APLIKATZEN

- Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailak neurri berriak jarri ditu abian, 1. Fasean modu seguruagoan eta jasangarriagoan mugitu ahal izango gara bermatzeko.
- Astelehenean Bilbaobiziren bizikleten mailegu-zerbitzua ezarriko da berriro. Astelehenetik barikura izango da martxan, 07:00etatik 20:00ak arte, eta bizikletak laneko joan-etorriak egiteko baino ez dira izango.
- Bilboko Udalak lanak eta tramiteak hastea erabaki du kale guztietara orduko 30 kilometroko gehieneko abiaduraren muga zabaltzeko. 300.000 biztanletik gorako munduko lehen hiria izango da neurri hori bide guztietan aplikatzen duena.
- Era berean, Bilboko Udalak espazio publikoaren inguruko araudia egokitu du ostalaritzako terrazak apurka-apurka zabaltzeko. Neurrien sorta bat prestatu da eta faseak abian jarri ahala aplikatuko dira.
- 1. Fasean ez da terraza berririk baimenduko. Hala ere, instalazio berrietarako edo instalazioen azalera zabaltzeko eskariak aurkez daitezke.

(*Bilbon, 2020ko maiatzaren 9an*). - Bilboko Udalak mugikortasunaren arlorako eta terrazan irekierarako aurkeztu dituen neurriak maiatzaren 11n, astelehena, hasiko dira aplikatzen, deskonfinamenduaren 1. Fasearekin batera.

MUGIKORTASUN ETA JASANGARRITASUN SAILA

1. Fasean sartzearekin batera, Bilboko Udalaren Mugikortasun eta Jasangarritasuna Sailak zenbait neurri jarriko ditu abian **urian modu seguruan eta jasangarrian mugitu ahal izateko eta osasun-agintarien gomendioak betetzeko.**

Helburua garraioko eta joan-etorriak egiteko modu guztien bizikidetzaren hobetzea da, bereziki iraunkorrenak eta osasungarrienak, hala nola, bizikleta eta oinez joatea.

Egoera berriari aurre egiteko hartuko ditugun neurri guztiek gure hirian ingurumen eta akustika kalitateari dagokionez lortu dugun guztia atzeraka joatea ez izatea nahi dugu, orain arte garraio publikoaren alde eta ibilgailu pribatuaren erabileraren kaltetan garatu ditugun politikei esker.

BILBAOBIZI

Bizi dugun egoera honetan, edozein garraibidetako bidaiarien arteko distantzia fisikoa mantendu behar da kutsatzeko arriskuak murrizteko, eta bizikleta ibilgailu egokia eta gomendagarria da urian modu seguruan mugitzeko.

Hain zuzen ere, bizikletaren erabilera sustatzeko, datorren astelehenetik aurrera Bilbaobizi zerbitzua berriro ezarriko da, aldi baterako erabiltzeko baldintzekin eta osasun agintariek gomendatutako neurrien arabera:

- Bizikletak oinarrizko lanak egiteko bakarrik erabili ahal izango dira. Zerbitzuaren ordutegia astelehenetik barikura 7:00etatik 20:00etara izango da bizikletak alokatzeko, eta 20:30ak arte bizikleta mailegu-guneetara itzultzeko. Gehienez, 30 minutu erabili ahal izango da.
- Eskularruak eta maskara erabili behar dira derrigor.
- Egunez, zerbitzua martxan dagoela, eta gaez, zerbitzua amaitzen denean, mailegu-guneak eta bizikletak desinfektatuko dira.
- Larunbatetik aurrera, bizikletak jarriko dira maileguan guneetan bateriak kargatzeko, baina **EZ DIRA ESKURAGARRI EGONGO**, ezin izango dira alokatu.
- Erabiltzaileen informazio bulegoa itxita egongo da; hortaz, ez da erabiltzaile berririk onartuko. Informazio guztia 94.656.49.05 telefonoan emango da (zerbitzuaren ordutegian). Horrez gain, bilbaobizi@bilbao.eus helbidea eta aplikazioa erabil daitezke.

BILBOBUS

Bilbobus ere deskonfinamenduaren fase berriaren beharretara egokitzen ari da; izan ere; puntako orduetako zerbitzuen % 90era iristen da dagoeneko.

Horrez gain, orain arte 5 linea baizik ez dira % 100ean ibili (ospitaleetakoak, L38-L57-L58-L85-A9), baina fase honetan beste 6 lineek emango dute zerbitzu osoa (L18-L30-L48-L56-L77-A6).

Horrela, lineak zabaltzeak eta garraio batetik beste batera joateko aukerak estaldura handiagoa emango dio uriari.

Gautxori zerbitzua ez da oraindik zabalduko.

Joan den astelehenetik, udal autobusetan gehienez ere eserlekuen % 50 okupa daiteke eta zutikako plazen % 25 –bi pertsona metro karratuko– segurtasun handiena bermatzeko.

Lekuagatik inor bidaiatu barik gera ez dadin, Bilbobusek autobus gehigarriak jarri ditu uri osoan zehar, bidaiari gehiago jaso ezin dituzten ibilgailuen ibilbideak osatzeko. Era berean, derrigorrezkoa da maskarak erabiltzea Bilbobus guztietan; Barik txartela baino ez da onartuko ordaintzeko, eta erdialdeko eta atzealdeko ateetatik baino ezingo da autobusetara sartu.

IGOGAILUAK. FUNIKULARRA

Udalaren 44 igogailuak eta Artxandako Funikularra martxan daude egun osoan eta ohiko maiztasunarekin; edukieraren % 50 bete daiteke. Denetan derrigorrezkoa da maskara erabiltzea. Gainera, uriko 5 tokitan dauden 20 arrapala edo eskailera mekanikoak guztiz gaituta daude, eta muga bakarra bi metroko distantzia fisikoa da, osasun agintariek espazio publikoan eskatzen dutena.

Instalazio eta igogailu guztiak egunero desinfektatzen dira.

TAXIAK

Azkenik, ibilgailu pribatuaren ordez taxi zerbitzua erabiltzea gomendatzen da, urian bisita turistikoa gutxiago dauden une honetan sektore honi laguntzeko. Taxian hartu beharreko babes neurriak hauek dira: maskararekin bidaiatzea, kopilotuaren eserlekua ez okupatzea eta ilara bakoitzeko bi pertsona esertzea (hiru ilarako taxiak ere badaude).

TAO

1. Fasearen hasierarekin bat, eta ibilgailu pribatuen zirkulazioa handiagoa izango dela aurreikusita, Bilboko TAO zerbitzuak ohiko ordutegia izango du maiatzaren 11tik (astelehena) aurrera, uriko joan-etorriak bermatu ahal izateko.

Ordutegia astelehenetik barikura artekoa izango da, goizeko 09:00etatik eguerdiko 13:30era arte eta arratsaldeko 15:00etatik 20:00etara arte. Zapatuetan Bilboko TAO zerbitzuaren ordutegia 09:00etatik 13:30era artekoa izango da, 1., 2., 3., 4. eta 10. gunetan.

Segurtasun-neurriak eta higiena areagotzeko, Bilboko Udalak BilbaoPark aplikazio ofiziala erabiltzeko gomendioa egin du eta ordaintzeko, ahal dela, txartela erabiltzeko.

Parkimetroak eta horietako teklatuak ohi bezala eta behin eta berriro garbitzeaz gain, desinfektatzeko lan bereziak ere egingo dira, egunean zehar.

Edozein zalantza argitzeko, deitu 94.470.10.47 telefonora edo joan Bezeroarentzako Informazio Bulegora (Lersundi 5).

SEMAFOROAK

Azkenik, asteburu honetan, jende-pilaketak gutxitzeko eta pertsonen joan-etorriak errazteko, hainbat neurri hartu ditugu, hala nola, 13 eremu ezartzea uriko barruti guztietan, oinezkoen joan-etorriei lehentasuna emateko.

Gainera, oinezkoentzako berde denborak zabaltzen hasi gara, semaforoz hornitutako 50 zebrabide baino gehiagotan. Neurri hori zabaltzeko eta mantentzeko asmoa daukagu.

Era berean, gomendatzen da zenbait aholku aintzat hartzea, urian gabiltzala elkarren artean tartea uzteko gomendioa hobeto betetzeko:

- Nondik ibili erabakitzeko orduan, oinezkoentzako leku zabala daukaten etorbide eta kaleei ematea lehentasuna.
- Ahal dela, ez ibiltzea kale estuetatik, elkarren arteko tartea uztea zaila den tokietan.
- Espaloietan edo oinezkoen guneetan, ahal dela, beti zirkulatu behar da norabidearen eskuineko aldetik. Bi espaloi dauzkaten kaleetan, norabidearen eskuineko espaloitik joan behar da.
- Urian ohikoak diren plaza eta ibilbideetan, hala nola Abandoibarran eta Campo Volantín inguruan itsasadarraren alde banatan doazen ibilbideetan, edo Kañu pasealekuan, erlojuaren orratzen norabidearen kontrakoan joatea (eskuinetik ezkerrera).

BILBO 30

Gainera, eta neurri garrantzitsuena zeharkakoa delako, **Bilboko Udalak lanak eta tramiteak hastea erabaki du kale guztietara 30 kilometro orduko abiadura muga zabaltzeko**, gaur egun hiriko bideen % 87an baitago indarrean.

Bizkaiko hiriburua, beraz, 300.000 biztanletik gorako munduko lehen hiria izango da trafikoa arintzea, gidatzeko ohiturak aldatzea eta airearen kutsadurari eta akustikari dagokien ingurumen-presioa murriztea lortu du neurri hori kale guztietan aplikatuko duena.

Orduko 30 kilometroko muga modu iraunkorrean ezartzeak garraio bide guztien arteko bizikidetzaren hobetuko du, ohitura osasungarriagoak sustatuz. Era berean, oinezkoen eta bizikleta erabiltzen dutenen segurtasuna areagotuko du, eta horrexegatik egiten ez dutenentzako pizgarria izango da.

ESPAZIO PUBLIKOA TERRAZAK ZABALTZEA

Bilboko Udalak bere araudia egokitu du ostalaritzako terrazak apurka-apurka zabaltzeko. Aparteko eta aldi baterako neurriak dira, Udalaren ahalmenen barruan,

osasun krisiak ostalaritzaren sektoreari eragiten dion kalte ekonomikoaren egoera arintzen saiatzen direnak.

Zehazki, neurrien sorta bat prestatu da eta deskonfinamenduaren faseak abian jarri ahala aplikatuko dira. Edozelan ere, faseak eta bakoitzaren baldintzak aldatu egin daitezke osasun-egoera aldatzen den neurrian hartzen diren erabaki politikoetan oinarrituta.

1. Fasea. Terrazak % 50eko altzariekin irekitzea:

Fase hau maiatzaren 11n hasiko da eta **terrazak ireki ahal izango dira gaur egun indarreko baimena daukaten establezimendu guztietan**. Hau da, 1.185 establezimendutan, horiek baitziren alarma-egoera ezarri zenean Bilboko Udalak zeuzkan baimenak.

Gainera, baimendutako mahai-kopurua bakoitia bada, **% 50eko neurria gorantz aplikatuko da**. Hau da, baimena hiru mahai jartzeko bada, bi jarri ahal izango da.

Muntaketak metro biko tartea utzi beharko du mahaien eta dagozkien aulkien (unitate laukizuzenak) artean. Horren ondorioz baimendutako terrazaren azalera gainditzen bada, ez da handitzerik eskatu beharko, okupazio hori baimenduta dagoela ulertuko baita.

Fase honetan ez da terraza berririk edo azalera zabaltzerik baimenduko. Hala ere, instalazio berrietarako edo instalazioen azalera zabaltzeko eskariak aurkez daitezke.

4 metro zabal ez diren espaloietan terrazak jartzeari dagokionez, fase honetan zehar bideragarriak diren ala ez baloratuko da (aldez aurretik Udalarari eskatuta); jokoera kolektiboa eta ilaren bizikidetzaz aztertuko da, eta deskonfinamenduaren gainerako faseetarako neurri desberdinak hartzeko aukera zabalik utziko da.

2. eta 3. Faseak.

Salbuespen modura, fase horietan, **nahi duen ostalaritza-establezimendu orok eskatu ahal izango du terraza**, bai eta aldez aurretik ukoa jaso dutenek edo terraza Aste Nagusian soilik daukatenek ere. Era berean, lehendik baimendutako terrazaren azalera zabaltzea eskatu ahal izango da.

Eskariak banan-banan aztertuko dira, eta ahal den neurrian, behin-behineko irtenbideak emateko ahalegina egingo da, Espazio Publikoari buruzko Ordenantza urratu barik.

4 metro baino gutxiagoko zabalera duten espaloietan, terrazaren bideragarritasuna aztertu ondoren (1. Fasean zehar), neurri osagarriak hartu ahal izango dira oinezkoen joan-etorria segurua izan dadin, eta terraza eta ostalaritzako establezimenduaren eta inguruko saltokien ilarak bateragarriak izan daitezzen. Esaterako, terrazaren azalera zabalduta daiteke hura galtzadan jarrita, Aste Nagusian egiten den antzera.

KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE GAI BATZUK

Terraza baimentzea ez da bateragarria izango kanpoko barrekin, apalekin eta establezimenduaren beraren atzeraemanguneetan jarritako bankuekin: Elementu horiek edukiz gero, baliogabetzeko neurriak hartu beharko dira. Bestela, terrazaren baimena ezeztatu edo ez da emango.

Gaur egun indarrean dauden terrazaren funtzionamendu-ordutegiak ez dira aldatuko, gauden egoeran egoteko ordutegiak mugatu ezik.

Ohiz kanpoko egoerak irauten duen bitartean luzatuko da hartutako aparteko neurrien indarraldia. Eta, edozelan ere, Udalak neurri horiek luzatu ahal izango ditu ostalaritzako egoera ekonomikoa kontuan hartuta.

MUGAK KALE ETA GUNE BATZUETAN

Ingurune bakoitzeko kasuistikek eta berariazko baldintzek eragina dute terrazak berriro aktibatzeke plangintza egitean.

Hala, esaterako, **Plaza Barrian eta Unamuno plazan, Santiago plazatxoan, Zazpi Kaleetan eta María Muñoz, Ledesma, Berastegi, Diputazio eta Egaña kaleetan** ezin izango da terrazaren azalera handitu, inguru txiki samarrak baitira eta establezimenduak elkarrengandik hurbil baitaude. Hori dela eta, espazio falta nabaria eta bateraezina sortzen da oinezkoen eta beste negozio batzuetako ilaran dauden pertsonen artean segurtasuneko distantzia gordetzearekin.

Hala ere, lekuaren egoerak horretarako aukera ematen duen kasu berezietan, aldatu egin daiteke unitate laukizuzenetako mahaien eta aulkien erlazioa.

Kale Nagusian, Areiltza doktorean, Sabino Aranan, Lutzanan eta antzekoetan, terrazaren azalera handitzeko adinako zabalera duten kaleetan, eskaerak banaka aztertuko dira, betiere ostalaritza-jarduera sustatzeko eta herritarren osasun-arriskua minimizatzeke.

Colón de Larreátegui, Mazarredo zumarkalea, Urkixo zumarkalea, Iparragirre, García Rivero eta Poza lizentziatuaren kaleen inguruetan, terrazak elkarrengandik oso hurbil daude, baina banaka aztertuko litzateke galtzadaren okupazioa, Aste Nagusian gertatzen den bezala.

EL AYUNTAMIENTO DE BILBAO PRESENTA LAS MEDIDAS EN EL ÁMBITO DE LA MOVILIDAD Y REAPERTURA DE TERRAZAS QUE EMPEZARÁN A APLICARSE EL LUNES 11 DE MAYO

- El Área de Movilidad y Sostenibilidad pone en marcha nuevas medidas para garantizar una movilidad más segura y sostenible en la nueva Fase 1.
 - A partir del lunes se restablece el servicio de préstamo de bicicletas Bilbaobizi, que funcionará de lunes a viernes de 7:00 a 20:00 horas y tendrá uso exclusivo para desplazamientos laborales.
 - El Ayuntamiento de Bilbao ha decidido iniciar los trámites y trabajos para extender al 100% de sus calles el límite de velocidad máxima de 30 km/h. Se convertirá en la primera ciudad del mundo de más de 300.000 habitantes que aplica esta medida en todas sus vías.
 - El Consistorio adapta asimismo su normativa de Espacio Público para una progresiva reapertura de las terrazas de hostelería. Se ha trabajado una batería de medidas que se irán aplicando en función de la puesta en marcha de las sucesivas fases.
 - Durante la Fase 1 no se autorizarán nuevas terrazas, aunque sí se podrán presentar solicitudes de nuevas instalaciones o de ampliación de la superficie destinada a ellas.

(Bilbao, 9 de mayo de 2020).- El Ayuntamiento de Bilbao presenta las medidas en el ámbito de la movilidad y reapertura de terrazas que empezarán a aplicarse a partir del lunes 11 de mayo, coincidiendo con la Fase 1 de desescalada.

ÁREA DE MOVILIDAD Y SOSTENIBILIDAD

Coincidiendo con la entrada en la Fase 1, el Área de Movilidad y Sostenibilidad del Ayuntamiento de Bilbao pondrá en marcha una serie de medidas para **favorecer una movilidad segura y sostenible en la ciudad y cumplir con las recomendaciones de las autoridades sanitarias.**

El objetivo es mejorar la convivencia de todos los modos de transporte y desplazamiento, especialmente los más sostenibles y saludables, como son la movilidad ciclista y la peatonal.

Queremos que todas las medidas que vayamos a adoptar para hacer frente a la nueva situación no signifiquen dar un paso atrás en todo lo conseguido en nuestra ciudad en cuanto a calidad ambiental y acústica, gracias a las políticas que hemos desarrollado hasta ahora en favor del uso del transporte público y en detrimento del uso del vehículo privado.

BILBAOBIZI

En una situación como la que estamos viviendo, en la que es necesario mantener el distanciamiento físico entre los viajeros de cualquier medio de transporte para reducir los riesgos de contagio, la bicicleta se presenta como un vehículo idóneo y recomendable para una movilidad segura en la ciudad

Precisamente, para fomentar su utilización, a partir del próximo lunes se restablecerá el servicio Bilbaobizi con unas condiciones de uso temporales y de acuerdo a las medidas recomendadas por las autoridades sanitarias:

- Las bicicletas únicamente podrán utilizarse para realizar tareas esenciales, y el horario de funcionamiento del servicio será de lunes a viernes de 7:00 horas a 20:00 horas para alquilar las bicicletas y hasta las 20:30 para devolverlas a los puntos de préstamo. El tiempo máximo de uso continuado será de 30 minutos.
- Será obligatorio el uso de guantes y mascarilla.
- Durante el día, con el servicio en funcionamiento, y por las noches, al cierre del servicio, se llevarán a cabo desinfecciones de los puntos de préstamo y de las bicicletas.
- Desde el sábado 9 se colocarán bicicletas en los puntos de préstamo para efectuar la recarga de las baterías pero **NO ESTARÁN OPERATIVAS**, no se podrán alquilar.
- La Oficina de Atención a las personas usuarias permanecerá cerrada al público, por lo que no se darán nuevas altas. Toda la información se realizará a través del teléfono 94.656.49.05 (en el horario del servicio), el correo electrónico bilbaobizi@bilbao.eus y de la app.

BILBOBUS

También Bilbobus está adaptando su servicio a las necesidades de la nueva fase de “desescalada” que alcanza ya el 90 por ciento de los servicios en hora punta.

Además, si hasta ahora solo 5 líneas circulaban al 100% (las que pasaban por los hospitales; L38-L57-L58-L85-A9), en esta nueva fase serán otras 6 las que ofrecerán este servicio completo (L18-L30-L48-L56-L77-A6).

De esta manera, la ampliación de líneas junto a la posibilidad de transbordo da una cobertura más extensa a toda la ciudad.

El servicio Gautxori continúa suspendido.

Desde el pasado lunes, el servicio municipal de autobuses funciona con una ocupación máxima del 50% de plazas sentadas y un 25% de las plazas de pie –dos personas por m²- para garantizar la máxima seguridad.

Para evitar que nadie se quede sin viajar por problemas de aforo, Bilbobus dispone de unidades de refuerzo por la ciudad para completar el trayecto de los vehículos que no puedan recoger más pasajeros. Asimismo, el uso de mascarillas es obligatorio en todos los autobuses de Bilbobus, solo se acepta el pago con la tarjeta Barik y únicamente se permite el acceso por las puertas de en medio y de detrás

ASCENSORES. FUNICULAR

Se mantienen operativos, las 24 horas del día, los 44 ascensores municipales y el Funicular de Artxanda, con un aforo permitido del 50% y frecuencia habitual. En todos ellos es obligatorio el uso de mascarilla. Además, las 20 rampas o escaleras mecánicas que hay en 5 localizaciones de la ciudad están plenamente habilitadas, con la única limitación del distanciamiento físico de dos metros, exigible en el espacio público por las autoridades sanitarias.

Todas las instalaciones y ascensores se desinfectan de forma diaria.

TAXI

Se recomienda la utilización del servicio del Taxi como alternativa al uso del vehículo privado, con el fin de apoyar a este sector en una coyuntura de menos visitas turísticas en la ciudad. Las medidas de protección en el taxi se concretan en la obligatoriedad de viajar con mascarilla, no ocupar el asiento de copiloto y ocupar dos personas por fila (existen taxis de tres filas).

OTA

Coincidiendo con el inicio de la Fase 1 y en previsión de un aumento de la circulación de vehículos privados, la OTA de Bilbao recuperará su horario habitual el próximo lunes 11 de mayo para garantizar la movilidad en la ciudad.

El horario será de lunes a viernes de 9.00 a 13.30 horas por las mañanas, y de 15.00 a 20.00 horas por las tardes. Los sábados, el horario de OTA Bilbao será de 9.00 a 13.30 horas, en las zonas 1, 2, 3, 4 y 10.

Para extremar las medidas de seguridad e higiene, el Ayuntamiento de Bilbao recomienda el uso de la App oficial (BilbaoPark) y utilizar en la medida de lo posible tarjeta para proceder al pago.

A las labores habituales y constantes de limpieza de los parquímetros y su teclado, se sumarán trabajos especiales de desinfección que se realizarán a lo largo de la jornada.

Para cualquier consulta sobre el servicio llamar al 94.470.10.47 o acudir a la OAC en la Calle Lersundi 5.

SEMÁFOROS

Recordamos que este fin de semana con el fin de reducir aglomeraciones y facilitar el desplazamiento de las personas hemos tomado una serie de medidas, como el establecimiento de 13 zonas en todos los distritos de la Villa donde se ha priorizado el desplazamiento peatonal.

Además, hemos comenzado a ampliar los tiempos de verde peatonal en más de 50 pasos de cebra semaforizados. Una medida que paulatinamente queremos ampliar y mantener en el tiempo.

También se mantienen los consejos útiles para favorecer el recomendable distanciamiento físico durante el tránsito por la ciudad:

- Planear los recorridos priorizando avenidas y calles con zonas peatonales anchas.
- Evitar calles estrechas donde sea difícil mantener la distancia social.
- En las aceras o zonas peatonales circular, siempre que sea posible, por el lado derecho en el sentido de la marcha. En las calles con dos aceras, hacerlo por la acera derecha, en el sentido de la marcha.
- En las plazas y circuitos habituales de la ciudad, como el que transcurre entre ambas márgenes de la ría por Abandoibarra y Campo Volantín, o el Paseo de los Caños, realizarlos en el sentido contrario a las agujas del reloj (de derecha a izquierda).

BILBAO 30

Además, y como medida más importante por su carácter transversal, **el Ayuntamiento de Bilbao ha decidido iniciar los trámites y trabajos para extender a toda su trama urbana el límite de velocidad de circulación a 30 kilómetros por hora**, que actualmente se encuentra en vigor en el 87 por ciento de las vías de la ciudad.

La capital vizcaína se convertirá de esta forma en la primera ciudad del mundo de más de 300.000 habitantes que aplica en el 100 % de sus calles una medida que ha conseguido calmar el tráfico, cambiar los hábitos de conducción y reducir la presión medioambiental referida tanto a la contaminación del aire, como a la acústica.

Incorporar ya de forma permanente el límite a 30 km/h mejorará la convivencia entre todos los modos de transporte, favoreciendo hábitos más saludables. A la vez aumentará la seguridad peatonal y de las personas usuarias de bicicleta, y animará a quienes no lo hacen por este motivo.

ESPACIO PÚBLICO. REAPERTURA DE TERRAZAS

El Ayuntamiento de Bilbao adapta su normativa para una adecuada y progresiva reapertura de las terrazas de hostelería. Se trata de una serie de medidas excepcionales y temporales que tratan de paliar, dentro de las posibilidades del Consistorio, la situación de quebranto económico que la crisis sanitaria está acarreado al sector hostelero.

En concreto, se ha trabajado en una batería de medidas que se irán aplicando progresivamente en función de la puesta en marcha de las sucesivas fases de desescalada. En cualquier caso, estas fases y sus correspondientes condiciones pueden modificarse en base a las decisiones políticas que puedan ir adoptándose según vaya evolucionando la situación sanitaria.

Fase 1. Apertura de terrazas con el 50 % del mobiliario autorizado:

En esta fase, que arranca el próximo lunes 11 de mayo, **podrán montar terrazas todos aquellos establecimientos que tengan, a día de hoy, una autorización en vigor.** Es decir, 1.185, que eran las autorizaciones que tenía concedidas el Ayuntamiento de Bilbao en el momento de decretarse el Estado de Alarma.

Además, en el caso de tener autorizado un número impar de mesas, **la aplicación del 50 % se entenderá al alza.** Es decir, si tiene autorizadas tres mesas, podrá montar dos.

El montaje deberá respetar la distancia mínima entre mesas y sus correspondientes sillas (unidades cuadrulares) de dos metros. En el caso de que esto provoque que se exceda la superficie de terraza autorizada, no habrá que solicitar ampliación de la misma, ya que esta ocupación se entiende como autorizada.

No se autorizarán nuevas terrazas en esta fase, ni ampliaciones de superficie; aunque sí se podrán presentar solicitudes de nuevas instalaciones o de ampliación de la superficie destinadas a ellas.

Respecto a la instalación de terrazas en aceras de anchura no superior a 4 metros se valorará su viabilidad (previa solicitud al Ayuntamiento) a lo largo de esta fase; analizando el comportamiento colectivo, convivencia de las colas... dejando abierta la posibilidad de adoptar medidas diferentes para el resto de fases de la desescalada.

Fase 2 y Fase 3.

Como medida excepcional, a lo largo de estas fases, **podrá solicitar terraza cualquier establecimiento hostelero que así lo desee,** incluso aquellos a los que se les hubiera denegado previamente o aquellos otros que disponen de terraza únicamente durante Aste Nagusia. Del mismo modo, se podrá solicitar ampliaciones de la huella de las terrazas ya autorizadas.

Todas estas peticiones se estudiarán de forma individualizada; intentando, en la medida de lo posible, dar soluciones provisionales sin contravenir la Ordenanza de Espacio Público.

En aceras de anchura no superior a los 4 metros, una vez analizada la viabilidad de la terraza (a lo largo de la Fase 1), se podrán adoptar medidas complementarias para posibilitar el tránsito peatonal seguro, así como la convivencia de la terraza con las colas del establecimiento hostelero y los comercios colindantes. Como, por ejemplo, la ampliación de la huella de las terrazas recurriendo a su montaje en la calzada, similar al modelo utilizado en Aste Nagusia.

OTRAS CONSIDERACIONES A TENER EN CUENTA

No será compatible la autorización de terraza con barras exteriores, baldas y los bancos en los retranqueos del propio establecimiento: En caso de tener estos elementos deberán adoptarse las medidas para que queden claramente inutilizados, en caso contrario se revocará o no se concederá la autorización de la terraza.

No se modificarán los horarios de funcionamiento de las terrazas actualmente vigentes, salvo que el horario de permanencia en el estado en que nos encontremos lo restrinja.

La vigencia de las medidas extraordinarias adoptadas se prolongará mientras dure la situación excepcional. Y, en cualquier caso, el Ayuntamiento podrá prorrogarlas teniendo en cuenta la situación económica del sector hostelero.

LIMITACIONES EN ALGUNAS CALLES Y ZONAS

Las casuísticas y condiciones específicas de cada entorno influyen a la hora de planificar la reactivación de las terrazas.

Así, por ejemplo, en las **plazas Nueva y Unamuno, la Plazuela de Santiago, Casco Viejo y las calles María Muñoz, Ledesma, Berástegui, Diputación y Egaña** no habrá **posibilidad de ampliar la superficie de las terrazas** ya que son entornos relativamente pequeños y los establecimientos son adyacentes unos a otros, lo que genera una falta de espacio evidente e incompatible con el mantenimiento de la distancia de seguridad exigible para peatones y para personas que hagan cola en otros negocios abiertos al público.

No obstante, en los casos particulares en que las condiciones de espacio lo permitan, se podría variar la relación mesas/sillas de las unidades cuadrículas.

En calles como **Gran Vía, Doctor Areilza, Sabino Arana, Lutzana y similares**, que tuvieran ancho suficiente para la ampliación de la huella de terraza, las peticiones se

estudiarán de manera individualizada, siempre en aras a conseguir la promoción de la actividad hostelera y a minimizar el riesgo sanitario de la ciudadanía.

En los entornos de **Colón de Larreátegui, Alameda Mazarredo, Alameda Urquijo, Iparragirre, García Rivero y Licenciado Poza** las terrazas conviven muy próximas unas a otras, pero se estudiaría de forma individualizada también la ocupación de la calzada, tal y como ocurre durante Aste Nagusia.